

KELTEN HARRESPILAK BIDASOAREN BEHEALDEAN

Keltak, Austria aldetik Europaren men-
debaldera jo zuten meategiekin baliat-
zeko eta era hortara zabaldu zuten
metalen kultura. Beraien aztarna nagusia,
noranahi joaten zirelarik, "cromlechs" deitzen
zieten harrespilak eraikitzea zen.

Luis Peña Basurtok 1960. urtean Aranzadi
Natur Zientzia Elkarteko Munibe aldizkarian
argitaratu zuen harrespilen katalogoa,
"Reconstitución y Catalogación de los "Crom-
lechs" existentes en Guipúzcoa y sus zonas
fronterizas con Navarra" izenburuz. Han datoz
Bidasoaren behealdekoak, Jaizkibelgo Izkulin-
dik zerbait beheratxoago daudenetatik hasita.

Aiako Harriaren inguruan aurkitzen dira
horietako asko, Arditurri meategietatik hurbil.
Inguru hartako handienetakoak eta ikusgarrie-
nak ditugu Oiartzungo Ianleku eta Errenga
lepokoak, 1915. urtean Telesforo Aranzatik
aurkituak. Besteak beste, aipamen berezia
merezi duten horien artean sartuko nituzke
Lesakako Katazpegi gaineko Agiña muinoan
daudenak. Gainera, Agiñako harrespil handie-
naren ondoan Luis Vallet eta Jorge Oteitzak

Aita Donostiaren omenez eraikitako kapera
eta estela daude.

Baina haietatik ez daude hain urruti, Bidasoa
ibaiaren bestaldeko Lapurdin, Urruñaren
lurraldeetan, Mandale mendian Ibardin aldera
eta Biriatu aldera Pitarre lepoan tumuloduna
Jose Miguel Barandiaranek aurkituak. Ikus
bere lana "Tumuli et dolmen de Biriadou",
Ikuska, 3. zenb. (1947). Horrez gainera, harres-
pilok katalogaturik utzi zituen 1949an D. Julio
Urkijo Ibarra zenaren omenez, ikus "Contribu-
ción al estudio de los Cromlechs pirenaicos"
lanean, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada
de los Amigos del País* aldizkariak argitaratu
zuen ale berezian (lan hori berargitaraturik
dator bere *Obras Completas*-en XII. liburukiko
343-360 orrialdeetan). Bestalde, ikus Telesforo
Aranzadi zenaren omenez Aranzadi Natur
Zientzia Elkarteak argitaratu zuen Munibe ale
berezian (XIV. urtekoa. 1962an) bertan J. M.
Barandiaranek eskaintzen zuen lana: "En el
Pirineo vasco. Prospecciones y excavaciones
prehistóricas". Lehenago, *El hombre prehistórico
en el País Vasco* (Buenos Aires, 1953) liburua-
ren 251. orrialdean zekarren horren berri.

KAFETEGIA



GOZOTEGIA
San Pedro 10
Tel. 943 64 10 47
20280 HONDARRIBIA

Arroka-Berri

ERRETEGIA



Higer bidea
Tel. 943 64 27 12
20280 HONDARRIBIA




Figura 1

Figura 2

Gero, bildurik dator bere *Obras Completas*-en (1962) XV. liburukiko (1962) 248-250 orrialde-etan.

Harrespila horietako asko ezagutu nahi dituenak, hiru hizkuntzan argitaratu zen liburuan oharrez zehatz lekukotuz, marrazkiz eta argazkiz, ikus beza Jesus Altunaren *Lehen Euskal Herria - Guía ilustrada de la prehistoria vasca - Guide illustré de préhistoire basque* (Ediciones Mensajero. Bilbo. 1975).

Zerbait harritzen nauena da, Aiako Harriaren inguruan eta Bidasoaren bazterretan arkeologoez egin dituzten ikerketetan erromarrak soilik aipatzea, zeren harrespilen lekukotasunak aski argi jartzen bai digute erromarren aurretik keltak hor ibili zirela bertako meategien esplotazioan. Erromarrak ordea, ohi zuten bezala, keltar arrastoen atzetik ibiltzen ziren meategiak aurkitzeko.

JUAN SAN MARTIN



Menaje
Industrial
Electricidad
Copia de llaves
Tornillería inoxidable

MARINEL

Burdindegia
Ferretería

Beñat Etxepare 12
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

Jon Alzaga

- Urdai azpikoak
- Hestekiak
- Gaztak
- Foies
- Edariak

San Pedro kalea 45 Tel. 943 64 44 70
20280 HONDARRIBIA